



HISTEROSONOGRAFIA (HSSG), KONTRASTEAREKIN EGITEN DENA

Zertan datza proba?

Histerosonografia edo HSSG bat laguntza bidezko ugalketa-kontsultan egiten den ekografia-prozedura bat da, Falopioren tronpak irekita eta iragazkor dauden zehazteko.

Nola prestatu behar dut proba?

- Behar izanez gero, probaren aurreko gauean, agindutako antibiotikoa hartuko duzu. Normalean, Zitromax ® ahotik hartzeko zorro bat emango da, eta farmazian jasoko duzu.
- Ez da beharrezkoa baraurik egotea proba hau egiteko.
- Komentatu medikamenturen bati alergia diozun. Behar izanez gero, Buscapina ® konprimatu 1 hartuko duzu proba egin baino ordubate lehenago.
- **OSO GARRANTZITSUA DA proba egunean HAURDUN EZ EGOTEA ETA HILEKOA EZ IZATEA**, bi kasuetan ezin izango baita egin.

Non egingo didate proba?

Proba beheko solairuan egingo da, Laguntza Bidezko Ugalketa Zerbitzuan, egun- eta ordu-hitzordua eskatu ondoren.

Nola egingo didate proba?

Ohatila ginekologiko baten gainean etzanda egongo zara, eta hankak tolestuta izango dituzu. Miaketa ginekologikoetan erabiltzen den aparatu bat jarriko dizugu baginan. Kanula edo zunda baten bidez, kontraste bat sartuko zaizu ekografiak egin ahal izateko.

Miaketa gogaikarria da, baina ez du inolako anestesiarik behar. Gutxi gorabehera 15 minutu irauten du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Hurrengo egunetan, proba egin ondoren, sabelaldeko beheko aldeko edozein min baduzu edota sukarrak jota bazaude, kontsultarako arrazoia da, eta medikuarengana joan beharko duzu.